

SEMINARIOAREN EGUNA 2018

Gazteentzat apostolu



OTOITZA

Jesukristo Jauna, Aitak mundura bidali zintuen Jilunpetan, galduta eta artzairik gabe zebilen giza-diari errukia eta pakea ekartzeko.

Eta, piztu ondoren, zure apostoluak mundura bidali zenituen, zure misio berberan parte izan zezaten eta horrela herri guztiei bizitza, salbazioa eta maitasuna eraman ziezaieten.

Jarraitu espirituzko ebanjelizatzaileak biltzen eta bidaltzen. Ez hitzekin soilik, baizik eta zure maitasunari esker berritutako bizitza baten bidez, Ebanjelioaren berri ona hotsegingo dutenak.

Aitaren errukiaren aurpegi eta herriaren zerbitzari apal izango diren apostoluak behar ditugu.

Egin ezazu asko izan daitezela eskuzabaltasunez apez bokazioaren dohaina onartuko dutenak; seminarioetan eta bizitza osoan zehar zure ikasle onak izanik, erabat Zuri, Zerbitzari, Apez eta Artzai zeran Horri, emanak biziko direnak; Espiritu Santuaren suaz, artzai grina piztuta mantenduko dutenak eta Zu ezagutzeko premian daudenak bilatzera aterako direnak.

Amen.

